



Euskaraz bizi nahi dut

**Xabier Mikel
Errekondo**

Euskara da bertako hizkuntza, besteak atzerritarak dira, eta nik euskaraz bizi nahi dut euskaldun eleanitzez osatutako Euskal Herrian. Ez dit axola euskara munduko hizkuntzarik ederrena denetz, nirea delako maite baitut. Baina, harro nago lehengo konkistatzaileenak bezala egungoen irain eta mehatxuen gainetik aurrerapen nabarmenak egiten jakin duelako. Lagunartean, mediotan, maila tekniko zein zientifikoan, unibertsitatean, notaritzan, administrazio agirietan... Gainera, sare sozialak lekuko, oker idatzita ere uler daiteke behintzat eta... Eta, hori bai, bizia, alaia eta koloretua da, pentsa Pirritx, Porrotx eta Mari-mototsen hizkuntza!

Erre egiten dit ordea egoera diglosiko itogarria gaudituz ez izanak. Begira Katalunia, bat-batean populazioaren herena adina etorkin jaso arren murgiltze ereduak lagunduta gizarteratzen asmatu duena. Beraz, arazoa soilik gurea da, euskararen normalizazioa lortzeko ezinbestekoa dugu hizkuntza politika aurrerakoi eta ausarta, eta murgiltze eredu ikasgela guztietara zabalduko duena. Baina, tokitan gaude. Iparraldean, egoera eskasari eusten ere nahikoa lan bada. Ekialdean, zonifikazioaren minbiziak eta baliabide ezak euskal lurralde desertizatua bilakatuko du Nafarroa neurri zorrotzak hartu ezean. Baina, men-debaldeko hiru probintzietako Hezkuntza eta Hizkuntza Sailburu Kristina Uriartek

kezkatu nau gehien, egungo errealitate soziolinguistikoa mantentzea duela helburu aitortu duenean. Hots, A eta B eredu bi-dez elebakarrak erdaldun huts jarrai dezaten egoera diglosikoa areagotuz. Hain justu, CIUko hezkuntza parlamentariak aitortu zidana, hurrengo LOMCeren hizkuntza dekretuak Kataluniako murgiltze eredu zartarazi nahi duela gurea bezalako eredu ezarritz.

Jaurlearitzak ez du konturatu nahi Wert-Uriarte akordioa pozoi hutsa dela Kataluniako murgiltze ereduarentzat? Ala beste akordioen baten ordaina da? Bada, merkatu kontutan ari bagara, arrazoi bat gehiago trukean aldatzeko kataluniar eta euskal gobernuak! •